

Karmeldarrak Euskal Herrian

Karmengo Ama Euskal Herriko fededunen artean bereziki maitea izan da, eta jaiera horren predikariak karmeldarrak izan dira. Hauek XIII. mendean geroztik gure artean ditugu. Bestalde oraintxe ari dira Ordenaren VIII. Mendeurrena ospatzen.

Zorionez, 2005ean eman zen argitara historia eder bat, bere azpitituluan *Carmelitas en Euskal Herria (siglos XIII-XX)* daramana, eta hor aurki ditzake irakurleak hona ezin bildu ditudan albiste zabalagoak.

Karmeldarrena XIII. mendean sortutako Eskeko Ordenen artean jarri behar da; baina Ordenako historialariek Testamentu Zaharreko eremiten tradizioan ikusi izan dute beren historiaurrea: Karmel mendiko bi profeta, Elias eta Eliseo, dauzkate karmeldarrek Ordenaren lehen guraso edo eredutzat.

Eliza latinoan, Ordena berritua

Elias eta Eliseoren bizitzak Eliz Gurasoen artean ere monje-bizitzarako eredu bezala ikusi ziren, eta XII. mende-bukaerako Lur Santuetako egoera bortitzean (hain zuzen, Jerusalem galdu zuten gurutzatuek 1187an), zenbait kristau herritarrek handik iparralderago aurkitu zuen babesa, eta batzuentzat Karmel mendia haien bakarleku bihurtu zen orduan.


Jerusalengo Patriarka Albert-ek eman zien Erregela ermitau haiei (1206-1214. urteetan edo), ondoko Aita Santuek berretsiko zutena (Honorio III.a, 1226; Gregorio IX.a, 1229). Horrela, aitopen ofizial osoa izan zuen Ordena gazteak Eliza latinoan ere.

Dena den, 1239-1244.etan egoera politiko-militarra gogortu egin zen Palestinan eta Karmel mendiko ermitauek Mendebaldera etorri behar izan zuten, eta hemengo premietara egokitu beren Erregela eta bizimoldea (1247); ermitau-bizitza aldaturik, Aita Santuek Eskekoen bizimoduetara eramane zituzten lehen karmeldar europar haiek. Bestalde, pixkaka-pixkaka Andre Mariarekiko jaiera indartuz joan zen Ordenaren barruan, debozio horren oinarritzko ezaugarrietako bat izateraino.

Euskal Herriko historian

Karmeldarren iraganean, gainerako Eskekoenetan bezala, bi Adar nagusi berezi behar dira fraideen artean: oinetakodunak eta oinutsak (nahiago bada, komentutarrak eta erreformatuak). Euskal Erdi Aroko karmeldarren historia, oinetakodunena izan zen (Baiona c.1250, Zangoza a. 1277, Iruñea c. 1330); geroago, Tuterako komentua gehitu zitzaizen horiei (1591). Esklaustrazioa arteko bizitza izan zuten (...1840), eta horietakoren bat edo beste Fraidearte ederra zen: adibidez, Iruñeko komentua 54 erlijioso izatera iritsi zen XVIII. mendean.

Euskal Herriko karmeldarren indartze berriak Sta. Teresa Avilakoaren (1515-1582) Erreforma-ekin etorri ziren, karmeldar oinutsekin, alegia.



Karmeldar hauek dira gaur egun Euskal Herrian ezagutzen ditugunak, fraideak bezala moja kontenplariak.

Iruñeko mojekin sartuzen Erreforma hau Euskal Herrian (1583), eta hurrengo urteetan fraide eta mojen nahikoa komentu ireki zen: Esklastrazio aurretik zortziren bat fraideenak eta sei mojenak.

Zuhaitz inausia bizkor etorri ohi den bezala, Karmeldarren Familia ere indar betean ageri da Esklastrazio ondoren (1868...), gizonetzotan bezala emakumezotan. Markinako komentua gertatu zen ondokoan sorburua; fraidetan, Gasteiz, Donostia, Larrea-Amorebieta edo Bilbo-Begoña izan dira komenturik handienak.

"Nafarroako Probintzia" erlijioso hau (Hegoalde osoa besarkatu duena) bokazio ugarikoa izan da: 140 erlijioso 1881ean, 496 (1925), 619 (1961) eta 264 (1997). Bitartean, beste hainbat Probintziaren guraso ere suertatu da Euskal Herrikoa, berorietako lehen pertsonala ere euskal Probintzia honetatik hartzean (Gaztela, 1889; Burgos, 1927; Kolonia, 1964; Portugal, 1981; Erta-merika, 1989).

XX. mendean, zinez azpimarratzekoa da nolako hazkundera izan duten karmeldarretan moja kontenplariak, hamabost komentu berri irekitzeraino. Monasterio berriak sortzeko adoretu agertu dira moja hauek, beste inongo Familia erlijiosotan baino areago; moja "itxiez" ari naiz. 1889-1957. urteetan, Murgia, Markina, Begoña-Getxo, Agurain, Azkoitia, Betoño, Zarautz, Etxabakoitz, Zaldibar, Durango, Donamaria, Urduña, Hondarribia, Gasteiz eta Meñakak ezagutu dituzte monasterio berriak.

Klausura hertsiko kontenplari horien ondoren, gogoratzekoak dira, gainera, moja ekile karmeldarrak. Bost Kongregazio modernok, bederen, izan du etxerik Euskal Herrian: guztira 40 moja-etxe gutxienez, euskal Hegoaldean.

Bukatzeko, gogora ditzadan Familia karmeldarren bi balio, bata orokorra, bestea gurekoa. Jainkoaren bilaketa pertsonalaren eta mistikaren Eskola nagusia izan da Karmel Sendia Mendebaldeko Eliza katolikoaren barruan, Sta. Teresa eta Joan Gurutzekoarekin, noski, baina baita Teresa Lisieux-koarekin (1873-1897) eta Edith Stein (1891-1945) Auschwitz-Birkenau-n naziek hil zutenarekin ere.

Bestalde, gure artean XVIII. mendetik gaur arte, euskal idazle-multzoko polita izan dute karmeldarrek: Arakistain, Prai Bartolome, etab. has-teko, Gabriel Jauregi aitzindaria, Lino Akesolo jakituna, edo S. Onaindia gerraostean luzaro argitalpen ugari kaleratua, euskal bilerak antolatu eta euskal literaturaren historia eskaini ziguna.

Erlijosoen munduan gaur egungo fraide karmeldarren euskal lana eredugarria da beren aldizkari (*Karmel*), eta liburutan, Markinatik batik bat zama eta kalitate handiko lana burutuz.

Joseba Intxausti

Gehiago jakiteko

SMET, J., J. (1987): *Los Carmelitas. Historia de la Orden del Carmen*. Madrid: BAC (495). I. liburukia.

URKIZA, J.; UNZUETA, A.; FDZ. DE MENDIOLA, A. (2005): *Provincia carmelitana de San Joaquín de Navarra. Carmelitas en Euskal Herria (siglos XIII-XX)*. Vitoria-Gasteiz: Ediciones El Carmen.

Galderak eta oharak: 610273580.